



Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 27koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Barakaldoko Udalari iradokitzen zaie hiri kaioen populazioa kontrolatzeko plan baten hitzarmena sustatu dezaten.

### Aurrekariak

1. Barakaldoko herritar batek Arartekora jo zuen Barakaldoko hainbat hiri ingurutan eta eraikinetan kaioak ugaritzearen ondorioz sortutako arazoak azaltzeko.

Erreklamazioan adierazi duenez, 2009. urteaz geroztik Barakaldoko Luis de Castrejana eta Arauti kaleetako eta Miranda etorbideko eraikinen teilatuetan kaioak pilatzen ari direla ikusi dute. Hegazti horietako batzuek estalki horietan habiak egin dituzte eta horrek inguruan bizi diren pertsonei hainbat osasungarritasun eta zarata arazo eragin dizkie.

Hegazti horiek euren eraikinetan ugaritu izanak zekartzan kalteak konpontzeko helburuarekin, Barakaldoko Udalaren esku-hartzea eskatu zuten arazoa bidera zezan.

Kexan azaldu duenaren arabera, Barakaldoko Udalak kaioen ugaritzearen kontrako jarduketa-plan bat burutzeko udalaren proposamenaren berri eman dio eta hura bideratzeko foru baimena beharrezkoa dela azaldu dio. Era berean, herritarrei hegazti horiei janaririk ez emateko eta zikintasun fokua ezabatzeko jarraibideak eskaintze aldera neurriak hartu direla jakinarazi dio. Bestalde, Barakaldoko Udalak auzoa garbitzeko lanak areagotzea aurreikusi du. Kontu horren inguruan ere Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailera zuzendu da dagozkien neurriak har ditzaten. Kasu honetan, Ingurumen Sailak adierazi dionez, sailak arazoa ezagutzen badu ere, kontu horren kudeaketa udalei dagokie.

2. Erreklamazio horri izapide egokia emate aldera, bi administrazioetako zerbitzu teknikoekin harremanetan jarri gara erantzun horien edukia baloratzeko eta kontu honi konponbide bat eskaini ahal izateko jarraitu beharreko jarduera publikoak argitzeko.
3. Barakaldoko Udalak gai horren inguruan Ingurumeneko Foru Sailari bidalitako idazkien berri eman digu. 2012ko martxoaren 7ko idazki batean, Ingurumen, Osasun eta Kontsumoko udal zerbitzuek Ingurumeneko Foru Sailari jarduketa-plan bat bidali zioten. Aipatzen diren jarduera ildoetan udal mailako hainbat neurri gaineratzen dira, hain zuzen ere: habien zonaldeak identifikatzea, eremu publikoak eta orube pribatuak garbitzeko kanpainak, informazio ekintzak.





Bestalde, habiak eta arrautzak kentzeko eta bortitzak diren edo zaurituta dauden animaliak hartzekok neurriak gaineratzen dira, eskumena duen foru organoaren baimena eskatzen dutenak. Halaber, kontu horren inguruan eskualdeko jarduketa-plan bat adosteko aukera proposatzen du, arazo hau izan duten kostaldeko udalerrri guztietan erantzun integrala emateko.

Ingurumeneko Foru Saileko eta Nekazaritza Saileko zerbitzu teknikoek erakunde honek telefono bidez egindako informazio-eskaerari erantzun egokia eman diote. Zerbitzu horietatik adierazi digute hasi berria den arazo hori ezagutzen dutela eta Barakaldo edo Portugaleta bezalako kostaldeko hainbat udalerritan agertu dela kaio arruntaren -kaio hankahoria (Larus cacchinnans)- habitat eta ohitura aldaketaren ondorioz. Kaio espezie hori ez dago espezie mehatxatuen katalogoan, kaio ilunaren kasuan bezalaxe. Espezie hori ezta ez da espezie zinegetikotzat hartzen, beraz, ezin da ehizatu. Horregatik, foru aldundiak uste du bere eskumen-esparrua bioaniztasuna babesteko legeriaren aplikaziotik sortutako baimenera mugatzen dela. Espezie babestuei dagokienean, baimena Ingurumen Sailari dagokio, eta beste espezieen kasuan Nekazaritza Sailari.

Zentzu horretan, Ingurumeneko Foru Sailak Barakaldoko Udalari emandako erantzunak -2012ko uztailaren 10ean- ondorioztatzen du proposatutako neurriak udal administrazioek zuzenean bideratu behar dituztela. Zinegetikoak ez diren espezieen populazioa kontrolatzeko baimenen kasuan, Nekazaritzako Foru Sailak urte guztian zehar ehizatzeko baimena eman ahalko du Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean xedatutako prozeduren bidez.

Aurrekari horiek guztiak ikusirik, egokia iruditu zaigu aipatutako kexa-espeditari buruzko zenbait gogoeta helaraztea, zehazki, erreklamazioak hizpide duen gaiaren ingurukoak:

### Gogoetak

1. Erreklamazio honen bidez Barakaldoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Barakaldoko hainbat eraikinetan habiak jartzen dituzten kaio talde batek sortutako osasungarritasun eta kalte arazoa konpontzeko esku-hartze eskaerari emandako erantzuna jorratzen da.

Hegazti basati horiek kostaldeko udalerrietan hiri habitatak hartzen hasi dira. Eraikinetako estalkietan habiak sortzeak hainbat zarata kalte eragiten ditu inguruko etxebizitzetan eta higiene eta osasungarritasun arazoak dakartza bizi diren eremuetan.



Kasu honetan, erreklamatzailleak eskumena duten administrazioei proposatu die beharrezkoak diren neurriak har ditzatela kalteak saihesteko eta eremu pribatu horietan garbitasun baldintza egokiak bermatzeko.

Hala ere, eragindako herri administrazioek -Barakaldoko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia- asmo horri eman dioten erantzunaren bidez ezin izan da jarduketa-plan bat zehaztu hegazti populazio hori kontrolatzeko eta ez daude beharrezkoak diren baimenak kalteak gutxitzeko aurreikusitako ekintzak abian jarri ahal izateko.

2. Hain zuzen ere, bi txostenek aipatzen duten moduan, herri administrazioak dira eremu publikoetan osasungarritasun publikoa eta garbitasuna babesteko eskumena duten organoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikuluan xedatzen duen moduan.

Horrela bada, udalari dagokio eremu publikoetan, zerbitzu horiek eskainiz, zein eremu pribatuetan garbitasuna eta osasungarritasuna bermatzeko neurriak hartzea. Lurzati eta eraikuntza pribatuen kasuan, jabetza segurtasun, osasungarritasun eta apaingarritasun publikoko baldintzetan mantentzeko beharra jabe partikularrei dagokie. Betebehar horiek urratzen direnean har dezake esku udalak burutzapen aginduak emanaz jabetza zaintzeko beharrezkoak diren lanak egin daitezen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. eta 203. artikulua.

Aztertzen ari garen kasuan, arazoa da oinarritzko osasungarritasun baldintzak betetzen direla bermatzeko neurriek kontuan hartu behar dituztela kalteen jatorria, kaioak, eta animalia espezie basati horren babesa erregulatzen duen araudia.

Bidalitako informazioa oinarri izanik, hiri inguruetan zarata eta higiene arazoak sortu dituen espeziea kaio hankahoria izan dela adieraz dezakegu. Espezie basati hori ez dago espezie mehatxatuen katalogoan gaineratuta eta ezin da ehizatu, kontrol zinegetikoaren araudian xedatutakoaren arabera. Nolanahi ere, animalia espezie horrek tokiko bioaniztasuna zaintzeko hainbat kontrol arauen mende dago onartutako legeriaren arabera.

Kasu honetan, fauna basatia babestu eta zaintzeko herri administrazioen eskumenak Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak arautzen ditu. Lege horrek autonomia erkidegoen eskumena ezartzen du egoera basatian bizi den bioaniztasuna zaintzen dela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartze aldera. Arau horren 52.2. artikulua zera aipatzen du:





*“Debekatuta dago animalia basatiak nahita hiltzea, kaltetzea, trabatzea edo urduritzea, edozein metodo erabilia ere edo edozein ziklo biologikotan egon arren. Debeku horrek barne hartzen du animaliak atxikitzea eta bizirik hartzea, euren habiak, kumeak edo arrautzak apurtzea, kaltetzea, biltzea edo atxikitzea, azken horiek hutsik egon arren, edota bizirik zein hilda dauden animaliak edo horien gorpuzkiak izatea, garraiatzea, trafikitzea eta saltzea, kanpo-merkataritza barne.”*

Foru aldundiko Ingurumen Sailaren txostenak azaltzen duen moduan, legeria horren 58. artikulua aukera ematen du, salbuespen gisa, eskumena duten administrazioek debeku horien kontrako neurriak baimentzeko bestelako konponbide egokirik ez dagoenean eta espezieen zaintza egoeran kalterik ez dakarrenean. Arrazoietako bat, hain zuzen ere, *“pertsonek osasunean eta segurtasunean eragin kaltegarriak”* saihestea da. Neurri horiek aplikagarriak dira espezieak kontrolatzeko neurri zinegetikoak alde batera utzita.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, Nekazaritza Saila izango litzateke erreklamazioan azaldutako moduko osasungarritasunik gabeko egoerak saiheste aldera espezie horren habietan esku hartzeko aukera eskainiko luketen hainbat neurri onartzeko eskumena izango lukeen organoa. Baimen hori publikoa eta arrazoitua izan beharko da eta, besteak beste, ekintzaren helburua eta justifikazioa, hizpide dituen espezieak, erabili beharreko neurriak eta horien mugak zein horiek erabiltzeko arrazoiak eta langile kualifikatuak zehaztu beharko ditu.

Neurri horiek proposatzen dituen administrazioarekin adostu behar dira, kasu honetan, administrazio interesdunaren (Barakaldoko Udala) lankidetzeta eta laguntzarekin. 42/2007 Legearen 7. artikulua lankidetzeta eta laguntza printzipioa ezartzen du bioaniztasuna zaintzearen esparruan. Era berean, hartu beharreko erabakian interesa duten elkarte ekologistek eta auzokideen elkarteek parte-hartzea sustatu behar da. Horrela bada, herri administrazioen beharren artean, 5.2. artikulua herritarrekiko parte-hartzea sustatzea gaineratzen du. Zentzu horretan, pertsonen osasuna eta segurtasuna behar bezala errespetatzen dela eta, neurri berean, egoera basatian bizi diren espezieen defentsa zaintzen dela bermatzen duten hainbat neurri hartzeko interesa duten pertsonen iritzia kontuan hartzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Nolanahi ere, hartutako neurri horiek arazo horren eragina duten hiri inguru guztietan hartu beharko dira, modu koordinatuan ere, espezie basati horren gaineko kontrol neurriak eraginkorragoak izan daitezten.





Kexan ageri diren datuak ikusirik eta administrazio horrek bidalitako informazioarekin eta egindako gogoeta juridikoekin bat eginez, gomendio hau egingo dugu:

**6/2012 IRADOKIZUNA, azaroaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari egina**

Foru sail horrek, Ingurumeneko Foru Sailaren eta hala eskatzen duten udal administrazioen lankidetzarekin, eta elkarre interesdunak helaraz ditzaketen alegazioak kontuan hartuta, hiri inguruetan habiak egiten dituzten kaioek pertsonen osasunerako eta segurtasunerako eragin kaltegarriak sor ez ditzaten hartu beharreko neurriak baloratu behar ditu, Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 58. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

**7/2012 IRADOKIZUNA, azaroaren 27koa, Barakaldoko Udalari egina**

Neurri egokiak adostu ondoren, udal horrek dagozkion ekintzak burutu beharko ditu osasungarritasun publikoari dagokionez dituen eskumenei jarraiki, espezie horiek kokatu diren lekuetan dauden jabekideen komunitateekin batera.

